Ildoren batean inbertsioa gutxieneko kopurura iristen ez bada baina ildo guztien arteko baturak 3.000,00 €ko kopurua gaindizten badu, inbertsio ildo horretara aurkeztutako zenbatekoa(k) ere onargarria(k) izango d(ir)a.

f) Enpresaren jardueran lan egiteko makina, aparailu, lan-tresnak ... barneratzen dituzten inbertsioek laneko ekipoen segurtasun eta osasunari dagokion araudia bete beharko dute (zinpeko aitortpen bidez ziurtatuko da). Nolanahi ere, Udal Elkar-teak edozein unetan eska dezake inbertsio horren inguruko argibide gehiago; edo inbertsioaren ikuskaritza egin; edo bestelako neurri bat hartu inbertsio horrek segurtasun eta osasunari dagokion araudia betetzen duela egiaztatzeko.

g) Diruz lagundutako elementuek gutxienez hiru urtez egon beharko dute enpresaren aktiboan, kasuan kasuko fakturaren datatik aurrera (1. eta 2. ildoen kasurako). Hirugarren ildoari dagokionean, eskuratutako aktiboak gutxienez 2 urtez egon beharko dute enpresan. Aldi horretan ezingo zaizkie hirugarren pertsona fisiko nahiz juridikoei saldu edo utzi.

h) Finantza-errentamenduen kasuan, 2020ko urtarrilaren 1etik hasi eta 2021. urteko abenduaren 31 bitarteko ordainketak bakarrik onartuko dira, laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko (beti ere epealdi horretan sinatutako kontratuei dagozkien ordainketak izan beharko dute). Inbertsioen diru laguntzaren kalkuluetarako ez dira kontuan hartuko errentamendu-kontratuarekin lotutako bestelako gastuak, hala nola, errentatzailearen marjina, interesen kostuak, gastu orokorrak, aseguru-gastuak...

Si en alguna de las líneas de inversión no se alcanza el mínimo exigido pero la suma de todas ellas supera los 3.000,00 €, el importe o importes presentados a esa línea de inversión también serán admitido(s).

f) Las inversiones que incluyan la compra de maquinaria, aparatos, herramientas de trabajo y otros dispositivos necesarios para la actividad de la empresa, deberán cumplir con la normativa en materia de seguridad y salud de los equipos de trabajo (se certificará mediante Declaración responsable). En todo caso, la Mancomunidad podrá solicitar en cualquier momento información adicional sobre la inversión en cuestión, realizar una auditoría de la misma o adoptar cualquier otra medida que acredite el cumplimiento de la normativa en materia de seguridad y salud.

g) Los elementos subvencionados deberán formar parte del activo de la empresa durante al menos tres años a partir de la fecha de la factura correspondiente, en el caso de las líneas 1 y 2. En el caso de la Línea 3, los activos adquiridos deberán permanecer en la empresa un mínimo de 2 años. Durante este periodo no podrán ser vendidos o cedidos a terceras personas físicas o jurídicas.

h) En el caso de las operaciones de arrendamiento financiero, a efectos del cálculo de la ayuda se tendrán en cuenta los pagos realizados entre el 1 de enero de 2020 y el 31 de diciembre de 2021. En todo caso, los pagos deberán corresponder a contratos suscritos en dicho periodo. En el cálculo del importe de las ayudas no se tendrán en cuenta otros gastos relacionados con el contrato de arrendamiento, tales como el margen del arrendador, costes de intereses, gastos generales, gastos de seguro, etc.

45. artikulua. Diru laguntzaren zenbatekoa.

- a) Ematen diren laguntzek itzuli beharrik gabeko diru laguntza izatera izango dute.
- b) Diru-laguntzaren zenbatekoa gehienez 3.000 €ko izango da enpresa bakoitzeko.
- c) Laguntzaren zenbatekoa izango da inbertsio onargariaren % 40a, beti ere aipatu den 3.000 €ko mugarekin.
- d) BEZa ez da diruz lagunduko, baldin eta enpresa onuradunak berreskuratu edo konpentsatzeko aukera badauka. Eskeraren argitu beharko da BEZa berreskuratu edo konpentsatu ezina. Halakorik argitzen ez den kasuetan, ulertuko da BEZa berreskuratzeko aukera dagoela eta ez da finantzatu.
- e) Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira beste erakundeek helburu bererako izan ditzaketan bestelako laguntzekin, beti ere jasotako diru laguntza guztiekin inbertsioaren zenbatekoaren % 100 gainditzen ez bada. Era berean, oinarri hauen 18. artikuluan ezarri den modura, bateragarriak dira deialdi honetako bigarren eta laugarren laguntza lerroekin, baina ez lehen laguntza lerroekin.

46. artikulua. Balorazio irizpideak.

Atal honetako diru laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Eskabideen balorazioa egingo da irizpide hauen arabera:

Artículo 45. Cuantía de la subvención.

- a) Las ayudas concedidas tendrán el carácter de subvenciones a fondo perdido.
- b) El importe máximo de la subvención será de 3.000 € por empresa.
- c) La cuantía de la ayuda será del 40 % de las inversiones admisibles, con el límite máximo de los ya mencionados 3.000 €.
- d) El IVA no será subvencionable si la empresa beneficiaria puede recuperarlo o compensarlo. En la solicitud deberá aclararse la imposibilidad de recuperar o compensar el IVA. En caso de que no se aclare lo anterior, se entenderá que existe la posibilidad de recuperar el IVA y no se financiará.
- e) Estas ayudas serán compatibles con cualesquiera otras que pudieran corresponder a otras entidades para la misma finalidad, siempre que la suma total de las ayudas recibidas no supere el 100 % del importe de la inversión. Asimismo, tal y como se establece en el artículo 18 de estas bases, serán compatibles con las líneas de ayuda segunda y cuarta de la presente convocatoria, pero no con la primera.

Artículo 46. Criterios de valoración.

Las subvenciones de este apartado se concederán mediante concurso. La valoración de las solicitudes se realizará de acuerdo a los siguientes criterios:

Balorazio irizpideak	Puntuak gehienez
Inbertsioaren hornitzailea eskualdekoa izatea.	10 puntu
Enpresa eskatzailearen jardura izatea lehen sektorekoa; edo bigarren eta hirugarren sektoretako jardura-mota hauetakoa: itsasoari lotutakoak, ostalaritza, turismo jarduerak, merkataritza, kultura eta sormen industriak. (E eranskinaren arabera).	5 puntu
2018. urtean edo geroztik Urola Kostako Udal Elkarteak antolatutako ekimenen batean (prestakuntza, lankidetzataldeak, eta enpresen lehiakortasuna areagotzeko programen baitako ekintzak) parte hartu izana, gutxienez. Ez dira kontuan hartuko egun bateko jardunaldi informatiboak edo aholkularitza zerbitzuak	3 puntu
Inbertsioaren egokitasuna, ondorengo eraldaketa hauek lortzeko: 1.- Eraldaketa teknologiko-digitala (1 puntu) 2.- Eraldaketa sozial-demografikoa (1 puntu) 3.- Eraldaketa energetiko-klimatikoa (1 puntu)	3 puntu
Enpresek hauetako gai edo arloren batean ziurtagiri homologatuak edota planak landuta eta indarrean edukitzea: - ISO 9001:2015 Kalitate kudeaketa (0,25 puntu) - ISO 14001:2015 Ingurumen kudeaketa (0,25 puntu) - ISO 45001:2018 edo OHSAS 18001, segurtasun eta osasunaren kudeaketa (0,25 puntu) - Aniztasunaren kudeaketa (0,25 puntu) - Berdintasun plana (0,25 puntu) - Euskara plana (0,25 puntu) ** - Partaidetza plana (0,25 puntu) ** 2. Ildoari dagokien inbertsioen kasuan, euskara planaren baliokidetzat joko da enpresa kudeaketa hobetzeko helburuz txertatutako gailu teknologikoak (aplikazio informatikoak, TBAI fakturazio-softwarea, webgunea...) euskaraz ezartzea gutxienez.	1,75 puntu
Enpresa eskatzaileak 10 langile edo gutxiago izatea.	1 puntu

Criterios de valoración	Puntuación máxima
Que la empresa proveedora sea de la comarca.	10 puntos
Que la actividad de la empresa solicitante pertenezca al sector primario, o que sea alguna de estas actividades pertenecientes a los sectores secundario y terciario: actividades relacionadas con el mar, hostelería, actividades turísticas, comercio, cultura e industrias creativas. (según anexo E).	5 puntos

Criteria de valoración	Puntuación máxima
Que la empresa solicitante haya participado desde el año 2018 en al menos una iniciativa (de formación, o cooperación, o en alguna actividad relacionada con algún programa para la mejora de la competitividad empresarial) organizada por la Mancomunidad Urola Kosta. No se tendrán en cuenta las jornadas informativas o los servicios de asesoramiento de un solo día.	3 puntos
Pertinencia de la inversión para conseguir las siguientes transformaciones: 1.- Transformación tecnológico-digital (1 punto) 2.- Transformación socio-demográfica (1 punto) 3.- Transformación energético-climática (1 punto)	3 puntos
Que en la empresa se desarrollen y surtan efecto los certificados homologados o planes relacionados con algunas de las materias o áreas siguientes: - ISO 9001:2015 Gestión de calidad (0,25 puntos) - ISO 14001:2015 Gestión ambiental (0,25 puntos) - ISO 45001:2018 o OHSAS 18001 Gestión de seguridad y de salud (0,25 puntos) - Gestión de la diversidad (0,25 puntos) - Plan de igualdad (0,25 puntos) - Plan de euskera (0,25 puntos) - Plan de participación (0,25 puntos) ** En el caso de las inversiones englobadas en la Línea 2, se considerará equivalente al plan de euskera que la empresa haya implantado en euskera alguno de sus dispositivos tecnológicos (aplicaciones informáticas, software de facturación TBAL, página web...), para sus objetivos de mejora de gestión empresarial.	1,75 puntos
Que la empresa solicitante cuente con una plantilla igual o inferior a 10 personas trabajadoras.	1 punto

Balorazio Mahaiak goiko taulan ezarritako puntuetan balio partzialak aplikatu ahal izango ditu, irizpide jakin bat osorik betetzen ez bada.

Eskabideen balorazioan berdinketarik gertatzen bada, lehendabizi aurreko deialdietan inbertsioetarako diru laguntzarik lortu ez dutenei emango zaie lehentasuna; eta ondoren, eskabideen Sarrera Erregistroko hurrenkera hartuko da kontuan.

#### 47. artikulua. Eskabideak.

1. Inbertsioetarako laguntza bakarria eskatu ahal izango du enpresa bakoitzak; eta eskaera hori lan ildo bakar batentzat edo eta gehiagorentzat izan ahal izango da.

Eskaera bat aurkeztu eta eskaera epea amaitu aurretik bigarren eskaera bat aurkeztu nahi izanez gero, aurrengoari uko egin beharko zaio, bitarteko elektronikoak erabiliz eta 11. artikuluan ezarritako prozedura jarraituz. Gainerakoan, Udal Elkartearen sarrera erregistroan eskatzaile beraren eskaera bat baino gehiago baldin badaude, lehendabizikoa hartuko da kontuan sarrera erregistroko hurrenkerearen arabera.

2. Eskaera ordezkari bidez aurkeztu nahi izanez gero, ordezkari bati beste pertsona bati eman ahal izango zaio, bitarteko elektronikoaren bidez interesdunaren izenean jardun dezan, agindu honi buruzko prozedura guztietan.

3. Atal honetako diru laguntzen eskabideak aurkeztu behar dira oinarri hauen 11. artikuluan ezarritako modu eta epealdian. Diru laguntza eskatzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- Eskabidea: C eranskina.
- Zinpeko aitortpena: C1 eranskina (eskaera fasekoa).
- «Ordezkaritza ematea» agiria, baldin eta eskabidea ordezkari bidez egin nahi bada.

#### 48. artikulua. Zuriketak eta ordainketak.

Diru laguntza ordainduko da ordainketa bakarrean (% 100), Diru laguntza ematea onartu, inbertsioaren zuriketa aurkeztu eta ontzat eman ondoren. Eskabidean adierazitako inbertsioaren zenbatekoa eta zuriketaren aurkeztutakoa bat ez baldin bada, zenbateko txikiena hartuko da kontuan.

En el caso de que un criterio no se cumpla en su totalidad, la Mesa de Valoración podrá aplicar valores parciales en las puntuaciones establecidas en la tabla anterior.

Si se produjera un empate en la valoración de las solicitudes, se dará prioridad a aquellas que en convocatorias anteriores no hayan obtenido ninguna subvención para la realización de inversiones, y posteriormente se tendrá en cuenta el orden de presentación de las solicitudes en el registro de entrada.

#### Artículo 47. Solicitudes.

1. Cada empresa podrá solicitar una única ayuda para las inversiones, que podrá corresponderse con una o varias líneas de trabajo.

La presentación, antes de la finalización del plazo, de una segunda solicitud requerirá la renuncia de la primera, lo cual habrá de hacerse por medios electrónicos y siguiendo el procedimiento establecido en el artículo 11. Por lo demás, en el caso de que un mismo solicitante inscriba más de una solicitud en el registro de entrada de la Mancomunidad, solo se tomará en consideración la primera de acuerdo número de registro.

2. Si se desea, podrá conferirse la representación a otra persona para que actúe en nombre del interesado por medios electrónicos en todos los procedimientos relativos a la presente Orden.

3. Las solicitudes para la obtención de ayudas de este apartado deberán presentarse conforme a la forma y al plazo establecidos en el artículo 11 de estas bases. Para solicitar la subvención se deberá presentar la siguiente documentación:

- Impreso de solicitud: anexo C.
- Declaración responsable (fase solicitud): anexo C1.
- Documento «Otorgamiento de representación», si se desea presentar la solicitud mediante representante.

#### Artículo 48. Justificaciones y pagos.

La subvención se abonará en un único pago (100 %), una vez aceptada la concesión, presentada la justificación de la inversión y aceptada la misma. En el caso de que el importe de la inversión indicada en la solicitud no coincida con el presentado en la justificación, se tendrá en cuenta el importe más bajo.

Amaierako zuriketa aurkeztu beharko da, beranduenera, 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen.

Inbertsioaren zuriketa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

a) Amaierako zuriketa eta ordainketaren eskaera: C2 eranskina.

b) Zinpeko aitortpena (zuriketa fasekoa): C3 eranskina.

c) Laneko arriskuen prebentzioa eta hau egiaztatzeko beharrezko diren agiriak (langileak izanez gero).

d) Enpresan ezarrita dauden ziurtagiri homologatuen eta planen ziurtagiriak. Eta, inbertsioen 2. ildoan «Enpresa kudeaketa hobetzeko helburuz txertatutako gailu teknologikoak (aplikazio informatikoak, TBAI fakturazio-softwarea, webgunea...) guxtienez euskaraz ezarritako kasuetan, hori egiaztatzen duen dokumentazioa: delako inbertsioaren eskuliburua, hornitzailearen ziurtagiria. Bi dokumentu horietako bat fakturak ordezkatu ahal izango du, bertan argi jasotzen bada euskaraz aritzeko prestatuta dagoela.

e) Inbertsioaren fakturak (edo balio bereko dokumentua, adibidez eskritura publikoa) eta banku bidezko ordainketen egiaztapenak (transferentzien egiaztapenak edo gisa berekoak).

Inbertsioaren fakturak eta ordain agiriak 2020ko urtarrilaren 1etik hasi eta 2021. urteko abenduaren 31 bitarteko data izan behar dute.

**49. artikulua.** Gorabeherak jakinarazteko betebeharra.

Onuradunaren betebeharra da diruz lagundutako jardueraren (inbertsioaren) inguruko gorabeherak Urola Kostako Udal Elkarteari jakinaraztea, gertatu eta berehala, hala nola: diruz lagundutako inbertsioa ez egitea erabakitzea; diru laguntzaren zenbatekoa finkatzeko baldintzaren baten aldaketa eta abar.

#### IV. DIRU-LAGUNTZA LERROA

##### ENPRESEN LEHIAKORTASUNA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

**50. artikulua.** Xedea.

Itzuli beharrik gabeko diru laguntzak emango dira eskualdeko enpresen lehiakortasuna sustatzeko, helburu honekin: eskualdeko enpresak hezkuntza zentroetara gerturatzea, prototipo, prozesu eta edo eta zerbitzu berriak garatzeko, garapen esperimental mailan.

Garapen esperimentalak ez ditu bere baitan hartzen produktuetan, produkzio ildoetan, fabrikazio prozesuetan, lehendik existitzen diren zerbitzuetan eta arribidean dauden beste operazio batzuetan egiten diren ohiko edo aldizkako aldaketak, nahiz eta aldaketa horiek hobekuntzak ekarri.

Urola Kostako Udal Elkartearen eremuan enpresa-sarea eta erdi eta goi mailako hezkuntza zentroak elkarrengana hurbildu nahi ditugu, egitasmo berritzaileak zehaztu eta garatzeko. Horrekin, eskualdeko enpresei lagundu nahi diegu hobetzen, produktu, prozesu eta edo zerbitzu berriak sor ditzaten.

Proiektuan parte hartzen duten bazkideei dagokienez, enpresek eskualdekoak izan behar dute (Aia, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaiia). Hezkuntza zentroak, berriz, eskualdekoak edo kanpokoak izan daitezke, beti ere, Gipuzkoan kokatuta badaude.

Eskualdeko enpresa izango da eskabidearen ardura izango duena, ondorio guztietarako. Egitasmoa enpresa bi edo gehiagoren artean, taldean, bideratu(ko) bada, eskabidean zehaztu beharko da zein izango den eskabidearen ardura duen titularra. Hori izango da Udal Elkartearen aurrean erantzule nagusia, ondorio guztietarako.

La justificación final deberá presentarse antes del 31 de enero de 2022.

Para la justificación de la inversión se presentarán los siguientes documentos:

a) Justificación final y solicitud de pago: anexo C2.

b) Declaración responsable (fase justificación): anexo C3.

c) Documentación acreditativa del cumplimiento en materia de prevención de riesgos laborales (en caso de disponer de personal).

d) Certificados homologados y planes establecidos en la empresa. En el caso de las inversiones englobadas en la Línea 2, documentación acreditativa de la implantación en euskera de alguno de los dispositivos tecnológicos (aplicaciones informáticas, software de facturación TBAI, página web...): manual de la inversión en cuestión o certificado del proveedor. Uno de esos dos documentos podrá ser sustituido por la factura, siempre que en ella conste de manera clara que el dispositivo en cuestión funciona en euskera.

e) Facturas correspondientes a la inversión (o documentación equivalente, como, por ejemplo, escrituras públicas) y justificantes de pago bancario (justificantes de transferencias o documentos similares).

Las facturas y los justificantes de pago de la inversión deberán tener una fecha comprendida entre el 1 de enero de 2020 y el 31 de diciembre de 2021.

**Artículo 49.** Obligación de notificar las incidencias.

La entidad beneficiaria está obligada a notificar a la Mancomunidad Urola Kosta cualquier incidencia relativa a la actividad subvencionada (inversión) inmediatamente después de que tenga lugar, tales como: decisión de no ejecutar la inversión subvencionada, modificación de alguna de las condiciones para determinar la cuantía de la subvención, etc.

#### LÍNEA DE AYUDAS IV

##### AYUDAS PARA FOMENTAR LA COMPETITIVIDAD DE LAS EMPRESAS

**Artículo 50.** Objeto.

Se concederán subvenciones a fondo perdido para fomentar la competitividad de las empresas de la comarca con el objetivo de acercar las empresas de la comarca a los centros educativos para el desarrollo de nuevos prototipos, procesos y/o servicios a nivel de desarrollo experimental.

El desarrollo experimental no incluye los cambios habituales o periódicos en productos, líneas de producción, procesos de fabricación, servicios preexistentes y otras operaciones en curso, aunque estos cambios supongan mejoras.

Queremos acercar el tejido empresarial y los centros de educación media y superior para definir y desarrollar proyectos innovadores, en el ámbito de Urola Kostako Udal Elkarte. Con ello queremos ayudar a las empresas de la comarca a mejorar, para que creen nuevos productos, procesos o servicios.

En cuanto a los socios que participan en el proyecto, las empresas deben ser de la comarca (Aia, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaiia). Por su parte, los centros educativos pueden ser comarcales o de fuera de la comarca, siempre que estén ubicados en Gipuzkoa.

La empresa de la comarca será la encargada de la solicitud a todos los efectos. En el caso de que el proyecto sea llevado a cabo entre dos o más empresas, en grupo, en la solicitud se especificará la empresa titular responsable de la solicitud. Ésta será la principal responsable ante la Mancomunidad a todos los efectos.

**51. artikulua. Diru laguntzen onuradun eta betebeharrak.**

Diru laguntza hauen onuradun izan daitezke baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak:

- a) Egitasmoan parte hartzen duen enpresa(k) eskualdean kokatuta egotea (Aia, Getaria, Orío, Zarautz, Zumaia).
- b) Egitasmoan parte hartzen duten enpresa(k) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea.
- c) Egitasmoan parte hartzen duten enpresa(k) Foru Ogasu-neko, Gizarte Segurantzako eta, Urola Kosta eremuko Udaletako (Aia, Getaria, Orío, Zarautz eta Zumaia) zein Urola Kostako Udal Elkarteko zerga ordainketak egunean ordainduta edukitzea.
- d) Langileak bere kargu izateagatik, indarrean dagoen lan arloko araudia betetzea. Bereziki, laneko arriskuen prebentzio-ko 31/1995 legearen eskakizunak eta, orobat, laneko arriskuak prebenitzeko araudiaren eskakizunak ezarrita izatea. Besteak beste, prebentzio modalitatea (4 espezialitateak barne) eta prebentzio plana,... indarrean izatea gutxienez, eskaera aurkezten den momentutik.
- e) Diru laguntza gai diren ekintzak burutu beharko dira, 2020ko urtarrilaren 1etik hasi eta, 2022ko ekainaren 30a bitarteko epealdian.
- f) Eskatzaileak eskabidean adieraziko ditu proiektuaren hasiera eta amaiera datak (betiere aurreko e puntuan adierazitako epealdian egongo direnak) eta zurrizten dituen gastuak berak zehaztutako epealdi horretakoak izango dira.
- g) Administrazio edo erakunde publikoen edo txikitzat hartzen ez diren enpresen menpeko ez izatea edo horiek % 50 edo gehiagoko parte-hartzerik ez izatea.

**52. artikulua. Diru laguntzaren zenbatekoa.**

Hona hemen diru laguntza-lerro honetako laguntzen ezauzgarriak:

- a) Ematen diren diru laguntzek itzuli beharrik gabeko diru laguntza izatera izango dute.
- b) Diru laguntza ordainduko zaio eskabidean ardura duen titularrari.
- c) Diru laguntzaren zenbatekoa izango da, gehienez ere, onartutako proiektuaren % 50koa eta, gehienez ere, 4.000,00 eurokoa (BEZ-a ez da gastu hautagarria izango, enpresa onuradunak BEZa berreskuratzeko edo konpentsatzeko aukera badauka).
- d) Bazkide/partaide guztiak eskualdekoak baldin badira, diru laguntzaren zenbatekoa izango da, gehienez ere, onartutako proiektuaren % 80koa eta, gehienez ere, 7.000,00 eurokoa (BEZ-a ez da gastu hautagarria izango, enpresa onuradunak BEZa berreskuratzeko edo konpentsatzeko aukera badauka).
- e) Finantzatu ahal izango da Hezkuntza zentroaren pertsonal gastua, gehienez ere, 69,29 euro orduko mugarekin (BEZ-a ez da gastu hautagarria izango, enpresa onuradunak BEZa berreskuratzeko edo konpentsatzeko aukera badauka).
- f) Egitasmo baterako eskabide bakarra aurkeztu ahal izango da.
- g) Enpresa edota hezkuntza zentro batek egitasmo bat baino gehiago aurkeztu ahal izango ditu.
- h) Ez dira diruz lagunduko aurreko urteetan aurkeztu eta onartutako egitasmoak, horien osagarri direnak edota horien parekoak direnak.
- i) Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira beste erakundeek helburu bererako izan ditzaketan bestelako laguntzekin, beti ere jasotako diru laguntza guztiekin gastu hautagarrien zenbatekoaren % 100 gainditzen ez bada. Era berean, oinarri hauen

**Artículo 51. Personas beneficiarias de las ayudas y sus obligaciones.**

Podrán ser beneficiarias de estas subvenciones las personas físicas o jurídicas que cumplan los siguientes requisitos:

- a) Que la(s) empresa(s) participante(s) en el proyecto esté(n) ubicada(s) en la comarca (Aia, Getaria, Orío, Zarautz, Zumaia).
- b) Que la empresa o empresas participantes en el proyecto estén dadas de alta en el Impuesto de Actividades Económicas.
- c) Estar al corriente en el pago de los impuestos de la Hacienda Foral; de la Seguridad Social; de los Ayuntamientos del ámbito de la comarca Urola Kosta (Aia, Getaria, Orío, Zarautz y Zumaia) y; de la Mancomunidad Urola Kosta.
- d) Cumplir con la normativa en materia laboral vigente por razón de personas trabajadoras a su cargo. En particular, tener implementados los requisitos de la ley 31/1995 de prevención de riesgos laborales, así como, los requisitos de la legislación en materia de prevención de riesgos laborales. Entre otras, la modalidad preventiva (incluidas las 4 especialidades) y el plan de prevención, con vigencia mínima desde la presentación de la solicitud.
- e) Las acciones subvencionables deberán desarrollarse en el periodo comprendido entre el 1 de enero de 2020 y el 30 de junio de 2022.
- f) El titular de la solicitud deberá señalar en su solicitud las fechas de inicio y conclusión del proyecto (en cualquier caso estarán dentro del periodo establecido en el punto e). Los gastos justificados deberán corresponderse al periodo señalado por el solicitante en la solicitud.
- g) No depender ni estar societariamente vinculada o participada en el 50 % o más a administraciones, entes u organismos públicos ni empresas no consideradas pequeñas.

**Artículo 52. Cuantía de las ayudas.**

La cuantía y características de las ayudas de esta línea son las siguientes:

- a) Las ayudas concedidas tendrán carácter de subvenciones a fondo perdido.
- b) La ayuda será abonada al participante/socio responsable o titular de la solicitud.
- c) La cuantía máxima de la ayuda no podrá exceder del 50 % del coste del proyecto aprobado, y será como máximo de 4.000,00 euros. (El IVA no será subvencionable si la empresa beneficiaria puede recuperarlo o compensarlo).
- d) En los proyectos en que todos los socios sean de la comarca, la cuantía máxima de la ayuda será del 80 % del proyecto aprobado, con un máximo de 7.000,00 euros (El IVA no será subvencionable si la empresa beneficiaria puede recuperarlo o compensarlo).
- e) Podrá financiarse el gasto de personal del centro educativo con un límite máximo de 69,29 euros/hora (El IVA no será subvencionable si la empresa beneficiaria puede recuperarlo o compensarlo) y, el material adquirido por el responsable de la solicitud.
- f) Podrá presentarse sólo una solicitud por cada proyecto.
- g) Una empresa y/o centro de formación podrá presentar más de un proyecto.
- h) Serán excluidas las solicitudes que presenten proyectos presentados y aprobados en ejercicios anteriores o actuaciones o proyectos que sean complementarios o equivalentes.
- i) Estas subvenciones serán compatibles con cualesquiera otras que, teniendo el mismo fin, pudieran corresponder a otras entidades, siempre que del total de las subvenciones recibidas no se supere el 100 % del importe de los gastos elegibles. Así-

18. artikuluan ezarri den modura, bateragarriak dira deialdi honetako lehen, bigarren eta hirugarren laguntza lerroekin.

**53. artikulua. Gastu hautagarriak.**

Diru laguntza lerro honetan gastu hautagarritzat onartuko dira soilik 2020ko urtarrilaren 1etik 2022ko ekainaren 30ra bitarteko honako gastuak:

– Proiektua garatu du(t)en hezkuntza zentzoko pertsonaleko gastuak (betiere egitasmoan zuzenean parte hartu duten langileak soilik). Proiektua garatu du (t)en hezkuntza zentzoko pertsonaleko gastuen faktura aurkeztuko du diru laguntza zuritzeko. Gastu horiek entregagaiekin demonstratu beharko dira: aktak, sinadurak, argazkiak, planoak, gidak, bideoak...).

– Egitasmo prototipoak garatzeko beharrezko diren materialen gastuak (material horien erosketa diru laguntza honen eskatzaileak egin beharko du. Diru laguntza deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita egindako material gastuetan, gainera, fakturaren kontzeptuan adieraziko da dena delako egitasmoaren gastuak direla).

– 200 euro baino gehiagoko fakturak soilik onartuko dira. BEZ-a ez da gastu hautagarria izango, berreskuratzeko edo konpentsatzeko aukera badauka.

Aintzat hartuko dira soilik diru laguntzaren xede den proiektuarekin, zalantzarik gabe identifikatu daitezkeen zuzeneko gastuak.

Ez dira onartuko honako gastuak:

– Gastu orokorrak, hala nola: eraikin eta instalazioen mantentze gastuak, klimatizazioa, argi indarra, ura, garbiketara, aseguru-primak, alokairuak, segurtasun sistemak, telefono eta komunikazio gastuak, kostu informatikoak ...).

– Inbertsioak.

– Dietak eta garraio gastuak.

– Bulego materiala (inprimagailuak eta kontsumigarriak), tresneria eta ondasun suntsikorak.

– Egitasmoa bideratzeko azpi kontratazioak.

– Enpresa partehartzailearen pertsonalaren gastuak.

– Publizitate kanpainen edo difusiorako euskarriak.

Oinarriotan zehaztu gabeko bestelako gastuak hautagarritzat hartu ala ez Udal Elkarteak erabakiko du.

**54. artikulua. Balorazio irizpideak.**

Atal honetako diru laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Eskabideen balorazioa egingo da irizpide hauen arabera:

mismo, tal y como se establece en el artículo 18 de estas bases, son compatibles con las líneas de ayuda primera, segunda y tercera de la presente convocatoria.

**Artículo 53. Gastos elegibles.**

En la presente línea de ayudas tendrán la consideración de gastos elegibles sólo los gastos efectuados del 1 de enero de 2020 al 30 de junio de 2022:

– Gastos de personal del/de los centro(s) educativo(s) en el que ha(n) desarrollado el proyecto (únicamente del personal que ha participado directamente en el mismo). Se presentará la factura de gastos de personal del/de los centro (s) educativo(s) que ha(n) desarrollado el proyecto para justificar la subvención. Estos gastos se deberán demostrar con entregables: actas, firmas, fotografías, planos, guías, videos, ...).

– Gastos de materiales necesarios para el desarrollo de los prototipos del proyecto (la compra de dichos materiales deberá ser realizada por el titular de la solicitud. En los gastos de material realizados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria de subvención, además, se indicará en el concepto de factura que se trata de gastos del proyecto en cuestión).

– Sólo se admitirán facturas de importe superior a 200 euros (El IVA no será subvencionable si la empresa beneficiaria puede recuperarlo o compensarlo).

Sólo se tendrán en cuenta los gastos directos identificables de forma indubitada con el proyecto objeto de subvención.

No tendrán la consideración de gasto elegible:

– Los gastos generales: gastos de mantenimiento de las instalaciones, climatización, energía eléctrica, agua, limpieza, primas de seguros, alquileres, sistemas de seguridad, gastos de telefonía y comunicaciones, costes informáticos....

– Inversiones.

– Las dietas y gastos de transporte.

– Gastos en material de oficina (impresoras y consumibles), herramientas y material fungible.

– Subcontrataciones para el desarrollo del proyecto.

– Gastos de personal de la empresa participante.

– Campañas y soportes de publicidad y difusión.

Corresponderá a la Mancomunidad resolver la elegibilidad de cualquier otro gasto no señalado en el presente apartado.

**Artículo 54. Criterios de valoración.**

Las ayudas de esta línea se concederán por concurso, valorando las solicitudes presentadas de acuerdo a los siguientes criterios:

Balorazio irizpideak	Puntuak (gehienez)
<p>Proiektuaren bideragarritasuna, kalitate teknikoa eta ekarpena, eskaeran (D eranskina) agertzen diren ataletan zehazten denari erreparatuz (1 puntu bakoitzak):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitasmoaren helburua(k)</li> <li>- Proiekturako proposatutako lan-metodologia eta bazkide bakoitzaren rola</li> <li>- Aurreikusitako emaitzak</li> <li>- Proiektu-proposamenaren izaera berritzailea (egitasmoaren balio erantsia)</li> <li>- Lehiakortasunari egiten dion ekarpena eta faktore motibatzaileak</li> <li>- Proiektuak zer nola laguntzen dion enpresak hezkuntza zentroetara gerturatzen</li> <li>- Lan-taldearen koherentzia</li> <li>- Proiektuaren kronograma/faseen epeak eta egitekoak fase bakoitzean</li> <li>- Proiektuaren garapenerako erabiliko den materialaren zerrenda: bakoitzaren erabilera egitasmoan; proiektuarekin duen erlazioa</li> <li>- Proiektuaren aurrekontua</li> </ul> <p>Oharra: atal guztiei erantzun beharko zaie, proiektua baloratu ahal izateko. Ez zaie laguntzarik emango gehieneko puntuazioaren %50a baino gutxiago lortzen duten proiektuei</p>	10 puntu

<i>Balorazio irizpideak</i>	<i>Puntuak (gehienez)</i>
Enpresa eskatzailearen jardura izatea lehen sektorekoa; edo hirugarren sektoreko jardura-mota hauetakoa: itsasoari lotutakoak, ostalaritza, turismo jarduerak, merkataritza, kultura eta sormen industriak. (E eranskinaren arabera).	5 puntu
Proiektua lankidetzan gauzatzen bada, enpresa-bazkide enpresa kopurua: - Eskualdeko 2 enpresa (2 puntu) - Eskualdeko 3 enpresa baino gehiago (3 puntu).	3 puntu
Proiektuaren egokitasuna, ondorengo eraldaketa hauek lortzeko: 1.- Eraldaketa teknologiko-digitala (1 puntu) 2.- Eraldaketa sozial-demografikoa (1 puntu) 3.- Eraldaketa energetiko-klimatikoa (1 puntu)	3 puntu
2018. urtean edo geroztik Urola Kostako Udal Elkarteak antolatutako ekimenen batean (prestakuntza, lankidetzataldeak, eta enpresen lehiakortasuna areagotzeko programen baitako ekintzak) parte hartu izana, gutxienez. Ez dira kontuan hartuko egun bateko jardunaldi informatiboak edo aholkularitza zerbitzuak	3 puntu
Mikro enpresa izatea: enpresa-eskatzailea edo bazkide diren eskualdeko enpresek 10 langile edo gutxiago kontratatuta izatea.	1 puntu
Enpresek hauetako gai edo arloren batean ziurtagiri homologatuak edota planak landuta eta indarrean edukitzea: - ISO 9001:2015 Kalitate kudeaketa (0,25 puntu) - ISO 14001:2015 Ingurumen kudeaketa (0,25 puntu) - ISO 45001:2018 edo OHSAS 18001, segurtasun eta osasunaren kudeaketa (0,25 puntu) - Berdintasun plana (0,25 puntu) - Euskara plana (0,25 puntu) - Partaidetza plana (0,25 puntu) - Aniztasunaren kudeaketa (0,25 puntu)	1,75 puntu

<i>Criterios de valoración</i>	<i>Puntuación (máxima)</i>
Viabilidad, calidad técnica y aportación del proyecto, atendiendo a lo especificado en los apartados que figuran en la solicitud (Anexo D) (1 punto cada uno): - Objetivo(s) del proyecto - Metodología de trabajo propuesta para el proyecto y rol de cada socio - Resultados previstos - Carácter innovador de la propuesta de proyecto (valor añadido del proyecto) - Contribución a la competitividad y factores motivadores - Cómo ayuda la empresa a acercarse a los centros educativos - Coherencia del equipo de trabajo - Cronograma del proyecto/plazos de las fases y, tareas de cada fase - Relación del material a utilizar para el desarrollo del proyecto: uso de cada material en el proyecto; relación con el proyecto - Presupuesto del proyecto Nota: habrá que responder a todos los apartados para poder valorar el proyecto. No se concederán ayudas a los proyectos que obtengan menos del 50% de la puntuación máxima.	10 puntos
Que la actividad de la empresa solicitante sea la del sector primario o, de los siguientes tipos de actividades secundarias y terciarias: actividades marítimas, hostelería, actividades turísticas, comercio, cultura e industrias creativas. (Según anexo E).	5 puntos
Si el proyecto se desarrolla en colaboración, número de empresas socias: - 2 empresas de la comarca (2 puntos) - 3 o más empresas de la comarca (3 puntos)	3 puntos
Idoneidad del proyecto para lograr las siguientes transformaciones: 1.- Transformación tecnológica-digital (1 punto) 2.- Transformación social-demográfica (1 punto) 3.- Transformación energética-climática (1 punto)	3 puntos
Haber participado en al menos alguna de las iniciativas organizadas por Urola Kostako Udal Elkarte (formación, grupos de colaboración y acciones enmarcadas en programas dirigidos a incrementar la competitividad de las empresas) durante el año 2018 o posterior. No se tendrán en cuenta las jornadas informativas o servicios de asesoramiento de un día	3 puntos
Micro empresa: Que la empresa solicitante o las empresas de la comarca que sean socias tengan 10 empleados/as o menos.	1 punto

Criterios de valoración	Puntuación (máxima)
<p>Que las empresas tengan elaborados y en vigor certificados homologados y/o planes en alguna de las siguientes materias o áreas:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- ISO 9001:2015 Sistema de gestión de al calidad (0,25 puntos)</li> <li>- ISO 14001:2015 Sistema de gestión medioambiental (0,25 puntos)</li> <li>- ISO 45001:2018 o OHSAS 18001, gestión de seguridad y salud laboral (0,25 puntos)</li> <li>- Plan de igualdad (0,25 puntos)</li> <li>- Plan de Euskara (0,25 puntos)</li> <li>- Plan de participación (0,25 puntos)</li> <li>- Gestión de la diversidad (0,25 puntos)</li> </ul>	<p>1,75 puntos</p>

Balorazio Mahaiak goiko taulan ezarritako puntuetan balio partzialak aplikatu ahal izango ditu, irizpide jakin bat osorik betetzen ez bada.

Eskabideen balorazioan berdinketarik gertatzen bada, eskabideen Sarrera Erregistroko hurrenkera hartuko da kontuan.

Proiektua ez da onartuko definizioan hutsune nabarmenak baditu (azalpen argirik ez) edo emandako daturen bat faltsutu dela ikusten bada, dagokiona ez den puntuazioa lortzeko asmoz. Kasu horretan, gainera, erantzukizunagatiko beste egintza bazuk erabaki daitezke.

Nolanahi ere, proiektuetan ez da onartuko genero, adina edo jatorriaren arabera bereizkeriarik eta ezabatuko beharko dira horien arabera zereginak eta estereotipoak.

**55. artikulua. Diru laguntzaren eskabidea.**

Atal honetako diru laguntzen eskabideak aurkeztu behar dira oinarri hauen 11. artikuluan ezarritako leku, modu eta epealdian.

Diru laguntzaren eskabidea egingo du eskualdekoa den bazkideak. Bazkide guztiak eskualdekoak badira, eskabidean adieraziko dute zein den eskabidearen ardura duen titularra (baina beti ere kontuan hartuta titularra enpresa izan behar dela).

Eskaera ordezkari bidez aurkeztu nahi izanez gero, ordezkaritza beste pertsona bati eman ahal izango zaio, bitarteko elektronikoen bidez interesdunaren izenean jardun dezan, agindu honi buruzko prozedura guztietan.

Eskabidea aurkezteko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: D eranskina.
- b) Zinpeko aitortpena: D1 eranskina (agiri bat enpresa parte hartzaile bakoitzeko).
- c) «Ordezkaritza ematea» agiria, baldin eta eskabidea ordezkari bidez egin nahi bada.

**56. artikulua. Diru laguntzen zuriketa eta ordainketa.**

Diru laguntza ordainduko da ordainketa bakarrean (% 100), diruz lagundutako proiektua amaitu, zuriketa aurkeztu eta ontzat eman ondoren. BEZ-a ez da ordainduko, enpresa onuradunak BEZa berreskuratzeko edo konpentsatzeko aukera badauka. Eskabidean adierazitako egitasmoaren zenbatekoa eta zuriketan aurkeztutakoa bat ez baldin badatzo, zenbateko txikiena hartuko da kontuan.

Zuriketa aurkeztu behar da bi hilabeteko epearen barruan, proiektuaren amaierako datatik kontaktzen hasita eta, betiere, 2022ko abuztuaren 31 baino lehen.

Egitasmoaren zuriketa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) Zuriketa eta ordainketarako memoria teknikoa: D2 eranskina.
- b) Zuriketa eta ordainketarako memoria ekonomikoa: D3 eranskina.

La Mesa de Valoración podrá aplicar valores parciales a las puntuaciones establecidas en la tabla si estima que un criterio no se cumple en su totalidad.

En caso de empate entre las solicitudes valoradas, se tendrá en cuenta el orden de entrada de las solicitudes en el registro.

No se admitirá el proyecto si presenta deficiencias significativas en la definición (sin explicación clara) o si se observa que alguno de los datos aportados ha sido falseado con el fin de obtener una puntuación que no le corresponda. En este caso, además, pueden acordarse otros actos de responsabilidad.

En todo caso, en los proyectos no se admitirán discriminaciones en función del género, edad u origen, debiendo eliminarse las tareas y estereotipos en función de los mismos.

**Artículo 55. Solicitud de las ayudas.**

Las solicitudes correspondientes a este apartado se presentarán en el lugar, forma y plazos establecido en el artículo 11 de estas bases.

La solicitud será presentada por el socio participante de la comarca. En el caso de que todos los socios sean de la comarca, en la solicitud se designará a uno de ellos como responsable y titular de la misma (siempre teniendo en cuenta que el titular debe ser empresa).

Si se desea presentar la solicitud mediante representante, la representación podrá ser otorgada a otra persona para que actúe en nombre del interesado por medios electrónicos en todos los procedimientos relativos a la presente Orden.

Para realizar la solicitud de las ayudas deberá presentarse la siguiente documentación:

- a) Solicitud: Anexo D.
- b) Declaración responsable: Anexo D1 (un documento por empresa participante).
- c) Documento «Otorgamiento de representación», si se desea presentar la solicitud mediante representante.

**Artículo 56. Justificación y pago de la ayuda.**

El pago de la ayuda concedida se efectuará en un único pago (100 %), tras la presentación y aprobación de su justificación. No se abonará la parte correspondiente al IVA, cuando sea recuperable o compensable. En el caso de que no coincidan la cuantía señalada en la solicitud y la cuantía justificada, se tomará en consideración la menor de las dos.

La justificación habrá de presentarse en el plazo de dos meses, a contar desde la fecha de conclusión del proyecto y, en todo caso, antes del 31 de agosto de 2022.

Para la justificación final del proyecto desarrollado se presentarán los siguientes documentos:

- a) Justificación y pago. Memoria técnica: Anexo D2.
- b) Justificación y pago. Memoria económica: Anexo D3.



c) Laneko arriskuen prebentzioa eta hau egiaztatzeko beharrezko diren agiriak (langileak izanez gero).

d) Enpresan ezarrita dauden ziurtagiri homologatuen eta planen ziurtagiriak.

e) Gastu hautagarriak zuritzeko dokumentuak:

a. Pertsonaleko gastuak: Hezkuntza zentroa(k) edo berari lotutako Fundazioak igorritako faktura eta honen ordainketa agiria. Fakturen datak izan behar du eskatzaileak eskabidean adierazitako egitasmoaren epealdiaren barrukoa.

b. Materialen gastuak: faktura(k) eta ordainketen egiaztagiria(k) (transferentzien egiaztagiria edo gisa berekoak). Fakturen datak izan behar du eskatzaileak eskabidean adierazitako egitasmoaren epealdiaren barrukoa. Oharra: material gastu bakoitzaren erabilpena behar bezala justifikatu beharko da, proba dokumentalekin: erabilpenaren deskribapena, argazkiak, plano batean kokatuta...

*57. artikulua. Gorabeherak jakinarazteko betebeharra.*

Onuradunaren betebeharra da diruz lagundutako jardueraren (egitasmoaren garapena) inguruko gorabeherak Urola Kostako Udal Elkarteari jakinaraztea, gertatu eta berehala, hala nola: diruz lagundutako egitasmoa ez garatzea erabakitzea; egitasmoaren alderdi esanguratsuetan aldaketak egitea eta abar; finantzaketa iturri berriak...

c) Prevención de riesgos laborales y documentación necesaria para su verificación (en el caso de trabajadores/as a cargo).

d) Certificados de los planes y de los certificados homologados implantados en la empresa.

e) Documentación justificativa de los gastos elegibles:

a. Gastos de personal: Factura emitida por el/los centro/s educativo/s o Fundación/s vinculada/s y, justificante de pago de la misma. La fecha de la factura será del período del proyecto indicado por el solicitante en la solicitud.

b. Gastos de material: Gastos de materiales: factura(s) y justificante(s) de pagos (justificantes de transferencias o similares). La fecha de la(s) factura(s) será del período del proyecto indicado por el solicitante en su solicitud. Nota: el uso de cada uno de los gastos de material deberá justificarse adecuadamente con pruebas documentales: descripción de su uso, fotografías, encuadrados en un plano, ...

*Artículo 57. Obligación de notificar las incidencias.*

La empresa beneficiaria estará obligada a notificar inmediatamente a la Mancomunidad Urola Kosta las incidencias ocurridas en torno a la actividad subvencionada (desarrollo de proyectos en colaboración), tales como, la decisión de no realizar el proyecto de colaboración, modificación de aspectos relevantes y sustanciales del proyecto etc.